

ANALISIA



Futbola: hau ez da zirkoa, gerra baizik



Jon Torner Zabala

@jtorner

ARGAZKIA: LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Maiz aipatu da futbola –gizonezkoen goi-mailakoa zehazki– zirko hutsa dela, diru-gosea oinarri, masa entretenitzea xede duen zirkoa. Bilbon bereziki baina baita beste zenbait futbol zelaitan ikusitakoak ikusita, ordea, esango nuke futbola deskribatzeko termino egokiena ez dela hori, baizik eta “gerra”, konfrontazio-esparru normalizatua.

Nola uler daiteke, bestela, adiskide batek Whatsappeko foroan idatzi duen moduan, zer pasa zitekeen jakinda, erakunde gomendioa izatea umeak inguruko eskoletara ez eramateko eta jendea etxeetan gera zedin eskatzea, alegia, gerra-egoera bere horretan onartzea?

Zeren eta noski, partida bertan behera uztea astakeria litzateke, ezta? Futbola maite duten zaleei traizioa egitea, kolore zuri-gorriek ordezkatzeko dutenari sakrilegioa... Gainera, horrelako ekitaldiek hainbesteko dirutza uzten dute hirian... Kapitala bizitzaren gainetik.

Bilboko osteko erreakzio gehienak bide beretik doaz: ultra biolento guztiak, diren klubetakoak direla, futbol-zelaietatik bota behar dira. Futbol taldeek

esku hartu behar dute, baita UEFA bezalako entee ere. Bale, eta? Futbol taldeak, futbol zelaiak eta futbol ekitaldiak diruz laguntzen dituzten instituzioek (“futbolak, ematen dioguna baino gehiago itzultzen baitio herriari”) zer edo zer pentsatu beharko dute, ala? Eta, gure ofizioari helduta, kazetariok futbolari hainbesteko garrantzia ematen jarraitu behar al dugu?

Galderak gehiago baititut erantzunak baino: zein gizontasun ereduren barruan dabilta Bilboko gisako istiluetan parte hartzen dutenak? Fiskaltzako norbaitek ofizioz aktuatu al du Falangearen kontra, Spartakeko naziei informazioa pasa dietela publiko egin dutela aintzat hartuta? Bide batez, he-dabide batzuek zergatik ez dute aipatu ultra errusiarrak naziak direla?

Portzertu, gizonezkoen goi-malako futbola eta ultrak aipatu ditugu, baina asteburu oro maila apalagoko zein meen partidetan biraoka eta batzuetan mutur-joka aritzen diren gurasoak ez dira Herri Norteko “lau deszerebratu”. Alegia, oinarrian ere badela zer konpondua.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gasteiz 1976: ez ahaztu, ez etsi



Juan Mari Arregi

Espainiako Estatuako ordezkariak eta Arabako patronalak 1976ko martxoaren 3ko data ahaztu nahi dute. Espainiako gobernuetako bat izan zen bost langileren heriotzaren eta ehunka zaurituen erantzule. Arabako patronalak berriz, greba orokor historiko hura sorrazazi zuen. Gertaera haiengatik justizia eta ordaina eskatzeari utz diezaiegula nahi dute, baina Martxoak 3 eta Goldatu elkar-teak modu eredugarrian ari dira horretan. Langile klaseak, baita mugimendu hura guztia babestu zuten herri sektoreek ere, ezin dute ahan-tzi. Badator 42. urteurrena, eta komeni da konpromiso hori berritzea.

Ezin da ahaztu poliziak, Espainiako Gobernuaren agindupean –Manuel Fraga Iribarne eta Martín Villa buru– eta kapitalaren zerbitzura, su eta gar eragotzi nahi izan zuela mugimendu asanblearioa, sindikal-gintza bertikalaren kanonetatik at zegoelako. Ezin da ahaztu, ezta ere, greba eta mobilizazio ugari ekarri zituen mugimendu hura posible izan zela asanbladetatik eta ordezkaritza batzordeetatik sorturiko autoantolakuntzarengatik. Negoziatzaileak bilkura haietan aukeratzen ziren eta patronalak ezin zuen antolaketa hori etxekotu. Bizirik jarraitu behar du emakume eta herri sektoreen parte-hartzeak, greba haien zabalkunde, garapen eta iraupenerako giltza izan baitziren. Gaur egungo langile mugimenduentzat irakasgai garrantzitsua da hori.

42 urte igaro ondoren, Estatu krimen haren erantzukizun politiko eta sozialak ebatzi gabe daude, eta biktimek oraindik ez dute ordain justu bat izan. Baina ezin dugu etsitasunean erori. Martxoak 3 eta Goldatu elkar-teak txalotu behar ditugu, zeregin neketsu eta zail horretan jarraitzen dutelako. Eta euskal administrazioari babes osoa exijitu behar zaio.